

# Osoko bilkura

Elizondo, Baztango Udaletxea

2015eko irailaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, buruordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailbu-  
rua,

Arkotxa, Aurelia,  
Goenaga, Patxi,  
Iñigo, Andres,  
Oihartzabal, Beñat,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sagarna, Andoni,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi eta  
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun,  
Urkia, Miriam eta  
Zabaleta, Joseba,  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Jose Irazu  
«B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari;  
Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urru-

tiari; Joseba Lakarrak ahala Aurelia  
Arkotxari; Patxi Salaberrik ahala An-  
dres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik  
ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbi-  
dek ahala Andres Urrutiari.

Osoko bilkura Elizondon, Baztango  
Udaletxean hasi da, goizeko 10:00etan,  
ezkerreko zutabearen ageri diren euskal-  
tzainak bertan direla.

Hasieran, Joseba Otondo Baztango  
alkateak, korporazioaren izenean, ha-  
rrera egin die hurreratu diren euskal-  
tzainei. Era berean, Euskaltzaindiaren  
lana eta zeregina azpimarratu ditu, bai  
eta Elizondoren eta kokaturik dagoen  
eskualdearen euskalduntasuna goraipa-  
tu ere. Andres Urrutia euskaltzainbu-  
ruak, erakundearen izenean, eskerrak  
eman dizkie alkateari eta udal-batzarki-  
deei eta Euskaltzaindia euskararen lu-  
rralde guztietako erakundea dela azpi-  
marratu du. Harrerarekin amaitzeko,  
Baztango Udalak eta Euskaltzaindiak  
elkarri opariak egin dizkiote.

Ondoren, eguneko aztergaiei ekin aurretik, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta ezin etorrien zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatuta, urriko Osoko bilkuran aurreikusitakoak aztertzeari ekin zaio.

### 1. Osoko bilkurako (2015-05-29) 6.3 puntua onartzea, hala erabakiko balitz

6.3 puntua dela eta, M. L. Oñederraren testuaren segidan («M. L. Oñederrak jakin nahi luke nola programatu ziren hiru ordu bakarrik, garbi zegoenean aldeztu aurretik ez zela denborarik izango egitasmo eta batzorde guztiek bere lana aurkez zezaten bakoitzari hamarna minutu bakarrik emanda ere»), A. Urrutia euskaltzainburuak gehitzeko proposaturiko pasartea irakurri du idazkariordeak. Honakoa dio: «Euskaltzainburuak erantzun dio Zuzendaritzak azkeneko urteetan berebiziko aha- leginak egin dituela euskaltzain osoak aldian-aldian informaturik egon daitezen batzorde, egitasmo eta zerbitzuen zereginaz. Hartara, Osoko bilkuran sarri aurkeztu dituzte egitasmoen arduradunek euren lanen egoera eta emaitzak. Orobat, batzorde- denak eta zerbitzuenak. Bestalde ere, Barne Jardunaldiari Osoko bilkura batzuetan jarraipena ematea ohikoa izan da Euskaltzaindian, astirik ez dagoenean Osoko bil- kura batean Barne Jardunaldiaren eduki osoa aztertzeko. Nolanahi ere, Osoko bil- kuretan Barne Jardunaldia egitea lagungarria da Euskaltzaindiaren aurrekontua modu orekatuan aurrera eramateko, eragin ekonomiko txikiagoa duelako».

Oharrik egon ez denez, M. L. Oñederraren testuari A. Urrutiaren esaldiak gehi- tuta 2015eko maiatzaren 29ko bilera-agiriaren 6.3. puntua osaturik eta onarturik geratu da.

### 2. Osoko bilkurako (2015-07-17) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Ez da oharrik etorri eta, beraz, akta ontzat eman da.

### 3. *Hiztegi Batua* 2. itzulia

**3.1. Uztaileko Osoko bilkuran eskaturiko informazio gehigarria.** A. Sagarna eta M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunek gogorarazi dutenez, uztaileko Osoko bilkuran lau forma utzi ziren datu berrien argitan berrikusteko. Horiek aztertu dira aztergai berriei hasi aurretik. Diru zaharren sailean, *sueldo* formari buruzko informazio gehigarria eskatu zen: ea *Naf.* marka behar zuen batetik, eta adibide argigarri bat gehitzeko eskaera bestetik. Datuak aurkeztuta, *Naf.* marka gehitzea onartu da, eta OEHko Mendibururen adibidea, egokituta, eranstea: «**sueldo** iz. *Naf.* (diru zaharra): *Ezkontzen zen andreak eramaten zituen hiru sueldo eta diru txiki bere senarraren etxera.*

Arrazen saileko hiru forma ere utzi ziren datuen argitan berrikusteko: *behi gorri* vs *behigorri* auzian, arraza adierazteko *behi gorri* onartu da (*behigorri* mitologian dabil batez ere). *Labrit txakur* vs *labrit txakur* auzian, berriz, letra xehez jasotzea erabaki da (*labrit txakur*), datuek gehiegi laguntzen ez badute ere. Azkenik, *Gasteizko muturmotz* vs. *Arabako muturmotz* erabilera dela eta, *Gasteizko muturmotz* onartu da, hori baita erabiltzen dena.

**3.2. Jaien izenak.** Ohar bakarra egin zaio aztergai honi, *amabirjinak* forma gehitzeko eskatuz. Onartu egin da eta oharrik gabe onartutako beste 41 formekin batera jaso da: «**amabirjinak** iz. pl.».

**3.3. Elementu kimikoak.** Ez da oharrik egin, baina Hiztegi Batuko lantaldeak berak proposatutako aldaketa onartu da; alegia, *mendelebio* proposatua **mendelebio** forman jasotzea, EIMAre bidetik eta 156. arauak alfabeto zirilikoaren transkripzioaz proposatzen duena betez. Horrez gain, sarrera guztiei «iz. *Kim.*» informazioa gehitzea onartu da.

**3.4. Kasuen izenak.** Ez da oharrik egin eta bere horretan onartu da lantaldeak proposaturikoa. Zazpi forma berri gehitu zaizkie lehendik araututako 16 kasuei eta guztiei gehitu zaie «izond. eta iz. *Hizkl.*».

**3.5. Hatzen izenak.** Oharrik gabe onartu dira lantaldeak proposatutako hatzen izenak, baina *eri* osaerakoak gehitzeko proposatu du X. Videgain euskaltzain osoak. Datuak bildu dira eta Osoko bilkuran aurkeztu, baina Iparraldeko euskaltzainen esku utzi nahi izan da erabakia, proposamena aurkeztu bada ere (*eri potots*, *eri erakusle*, *eri nagusi*, *eraxtun eri* eta *eri ttipi*). Beñat Oihartzabalek *NolaErran*-eko corpuseko datuak bilduko ditu eta horren argitan hartuko da erabakia urriko Osoko bilkuran.

**3.6. Karten izenak.** 8 formari egin zaizkio oharrak, eta 22 berri proposatu dira. Lehendik arautuei kartei dagozkien informazioa gehituz onartu dira batzuk: «**altxaldi** 1 iz. 2 iz. (kartetan)», «**andere** 1 iz. *Ipar.* “andrea”. 2 iz. *Ipar.* (karta)», «**hirusta** 1 iz. *Trifolium sp.* 2 iz. (kartetakoak): *dama hirusta.*», «**kartak moztu**» (azpisarrera s.u. *karta*, lantaldeak proposatua zuena) eta «**palo** iz. *Heg.* (karta-jokoan)». Lehendik zeuden bezala utzi dira **paso** eta **tanto** sarrerak (eta honen aldaera *ttanto* ez sartzea erabaki da), eta **esku izan** eta **eskutik irabazi** azpisarrera proposatuak. Onartu diren forma berriak: «**belot** iz. *Ipar.* (karta-jokoa)», «**bridge** iz. (karta-jokoa)» eta «**ipurdi zikin** iz. (karta-jokoa)» (azpisarrera s.u. *ipurdi*). Azkenik, hauek dira isildu direnak: *burra*, *duble*, *flor*, *gerla*, *gezur-joko*, *gezurka*, *keimu*, *kuentxe*, *manila*, *mintza*, *mistigri*, *mus!* (*Euskaltzaindiaren Hiztegiak 2.* adiera gisa jaso du eta hori aski da),

*piñet, plegu, pleka, tira, tomate, triunfo, xizeta, xazpiterdia* (aski baita *xazpi* sarrerako azpisarrera gisa jaso dagoen *xazpi eta erdian*).

**4. Exonomastika. Ekainaren 26ko Osoko bilkuran aurkezturiko dokumentuaren («Kanpoko herritar-izenak sortzeko irizpideak») 10. orrialdeko adibidea eta 11. orrialdeko oin-oharra: zuzenketa.**

Ekainaren 26ko Osoko bilkuran, Baionan, kanpoko herritar-izenei buruzko gomendioa onartu zen. Hala ere, Txomin Peillenek ohartarazi zuen akats bat zegoela *Irkuts* grafian, *Irkutsk* baita. Exonomastika batzordeak, akatsa zuzentzeko asmoz, oker zegoenaren orde, 157. arauan ageri den *Txerepovets* Errusiako hiriaren izena erabiltzea proposatu du.

Exonomastika batzordeak eginiko proposamena onartu du Osoko bilkurak. Ondorioz, «Kanpoko herritar-izenak sortzeko irizpideak» zuzendu egingo da.

## 5. Eskuartekoak

**5.1. Jan Braun ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri eta hilberri txostena.** Hizkuntzalari poloniarra ekainaren 29an zendu zen, baina orain arte ez dugu izan haren heriotzaren berri. Izan, 89 urte zituen eta ohorezko euskaltzaina zen, 2000ko urriaren 27an izendatua. Zuzendaritzak hilberri txostena Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak prestatzea proposatzen du, 2015eko irailaren 23an harturiko erabakiaren arabera. Berak zeregin hori onartu du, baina, txostena osatzeko, gainerako euskaltzainei eskertuko lieke zenduari buruz dakizkiten datuak-eta ematea, urruntasunagatik ez baita asko haren bizitzaz dakiguna.

**5.2. Suzuko Tamura ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri.** Suzuko *Ainhoa* Tamura ohorezko euskaltzain japoniarra 2015eko abuztuaren 3an hil zen, Sho Hagio euskaltzale japoniarrak jakinarazi duenez. Zuzendaritzak hurrengoan proposatuko du hilberri txostena nork irakurri.

**5.3. Joshua Fishman ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena.** Zuzendaritzak ohorezko euskaltzain honen hilberri txostena Mikel Zalbide euskaltzain osoak prestatzea proposatu du, 2015eko irailaren 23an harturiko erabakiaren arabera. Osoko bilkurak eginiko proposamena onartu du.

**5.4. Xalbador eguna.** Fernando Aire *Xalbador* Ipar Euskal Herriko bertsolari zenaren omenezko eguna aurtengo urriaren 10ean eta 11n egingo da Urepelen. Eta harekin batera Ximun Ibarra *Zubikoa* eta Juan Joxe Eizmendi *Errezil* bertsolariak ere gogoratuko dira. Antolatzaileak Deiadarra elkartea eta Euskaltzaindia dira.

**5.5. P. Larzabalen jaiotzaren mendeurrena.** Urriaren 16an Literatura Ikerketa batzordeak Jardunaldia antolatuko du Baionan, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko Baionako Campuseko Tesien gelan. Euskaltzainei jardunaldiko egitaraua eskuratu eta Ana Toledo Literatura Ikerketa batzordeburuak aurkezpena egin du.

**5.6. Ahoskera batzordeak antolatutako jardunaldiaren aurkezpena.** Ahoskera batzordeak urriaren 23rako jardunaldia antolatu du Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikerkunean. Horiek horrela, jardunaldiko egitaraua banatu da. Era berean, M. L. Oñederra Ahoskera batzordeburuak egitarauaren nondik norakoak aurkeztu ditu.

**5.7. Hiztegi juridiko eta parlamentarioa biltzeko lantalde suntsikorren osaera.** Zuzendaritzak Eusko Legebiltzarraren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren barruan, hiztegi juridikoa eta parlamentarioa biltzeko eta bateratzen saiatzeko, lantalde suntsikorra eratzea proposatzen du, 2015eko irailaren 23an harturiko erabakiaren arabera. Era berean, Zuzendaritzak lantalde horren koordinatzailea Gotzon Lobera Revilla eta idazkaria, berriz, Eneko Oregi euskaltzain urgazlea izatea proposatu du. Lantalde suntsikorra eratzea, bai eta koordinatzailearen eta idazkariaren izenak onartu dira Osoko bilkuran.

Ondoren, Nafarroako Parlamentuak, Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek izendatu dituzten pertsonen berri eman da. Ondoko hauek:

Erakundea	Ordezkariek
Eusko Legebiltzarraren ordezkaria	Jesus Maria Agirre Berezibar
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria	Ander Irizar Apaolaza, Parlamentuko itzultzaile-interpretea
Eusko Jaurlaritzako, Herri Administrazio eta Justizia sailaren ordezkaria	Maite Imaz, IVAPeko itzultzaile eta terminologoa
Bizkaiko Batzar Nagusien ordezkaria	Juan Luis Derteano
Gipuzkoako Batzar Nagusien ordezkaria	Miren Irigoien Aizarna, titularra; Aitziber Eizagirre Arin, ordezkaria
Arabako Batzar Nagusien ordezkaria	Ainhoa Sagardui, Batzar Nagusietako legelaria; Xabier Zalbide Etxeberria, itzultzaile-interpretea

**5.8. Gotzon Lobera Revilla Sustapen batzordeko kide.** Sustapen batzordeak eskatuta, batzorde horretako kide izatea erabaki du Zuzendaritzak, 2015eko iraila-

ren 3an harturiko erabakiaren arabera. Curriculumuma Idazkaritzak dauka, eta, beraz, norbaitek eskuratu nahi badu, euskarri informatikoan bidaliko zaio.

**5.9. Andres Alberdi Corpus batzordeko kide.** Corpus batzordeak aurkeztutako eskariari erantzunez, batzorde horretako kide izatea erabaki du Zuzendaritzak 2015eko irailaren 3an eginiko bileran. Curriculumuma Idazkaritzaren eskuan dago eta, beraz, norbaitek eskuratu nahi izanez gero, euskarri informatikoan bidaliko zaio.

#### 5.10. Azaroko osoko eta ageriko bilkurak

- Urriaren 30ean, Donostian, 10:00etan Osoko bilkura egingo da, Gipuzkoako Foru Aldundian.
- Urriaren 30ean, Donostian, 12:00etan, Koldo Mitxelenaren jaiotzaren mendurrena dela eta, Ageriko bilkura egingo da Gipuzkoako Foru Aldundian, 2014ko azaroaren 29an eginiko Osoko bilkuran onartutakoaren arabera.

### 6. Azken ordukoak

**6.1. Joan Mari Torrealdai euskaltzain osoaren egoeraren berri.** Andoni Sargarna euskaltzainak J. M. Torrealdai euskaltzainaren osasun egoeraz azalpenak eman ditu, eta izandako terapia egoki baina, aldi berean, gogorraren ondorioz, onera egin duela azaldu du. Terapia horrek zati baterako ahuldu duenez, aldi batean bakarturik eta bisitarik gabe egon beharko duela azaldu du.

**6.2. P. Xarritton euskaltzain osoaren egoeraren berri.** Txomin Peillen euskaltzainak azaldu duenez, P. Xarrittonek azkenaldian bere osasunean beherakada izan du, mintzatzeko gogorik ezean nabarmendua.

**6.3. Iratzeder euskaltzain osoari omenaldia Donibane Lohizunen.** Azkenik, Jean-Baptiste *Battittu* Coyos euskaltzainak esan du urriaren 3an *Iratzeder* euskaltzain izanikoari omenaldia egingo zaiola Donibane Lohizunen, eta ospakizun horren eskuorria banatu eta xehetasunak eman ditu.

Eta beste aztergairik ez dela, 12:50 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da. Segidan, euskaltzainek 2015eko Nafarroa Oinez antolatzen ari den Baztango ikastolaren bi eraikinetan ikasleak, irakasleak eta gurasoak bisitatu dituzte.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Elizondon, 2015eko irailaren 25ean

Nafarroa Oinez 2015 eta Mariano Izeta ohorezko  
euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena

Elizondon, Arizkunenea Kultura Etxean, arratsaldeko 16:30ean, Nafarroa Oinez 2015 eta Mariano Izeta ohorezko euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena direla eta, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Andres Iñigo, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain ohorezkoak: Maite Idirin.

Euskaltzain urgazleak: Patxi Iñigo, Michel Itçaina, Peio Jorajuria, Paula Kasares, Daniel Landart, Iñaki Martinez de Luna, Rosa Miren Pagola eta Paskual Rekalde.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea.

Mariano Izeta ohorezko euskaltzainaren alabak eta senideak.

Mikel Arregi Euskarabideko zuzendaria; Mikel Belasko eta Josu Reparaz Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkariak; Elena Zabaleta Baztan Ikastolako presidentea; Josune Ortega Baztan Ikastolako zuzendaria; gurasoak, irakasleak eta ikasleak.

Elena Zabaleta Baztan Ikastolako presidenteak Ageriko bilkurari hasiera eman dio. Esker oneko hitzak izan ditu Euskaltzaindiarentzat Osoko bilkura Elizondon egin duelako, Baztan Ikastola bisitatu duelako, bai eta Ageriko bilkura antolatu duelako ere.

Ondoren, Mariano Izetaren jaiotzaren mendeurrenaren karietara antolatu den ekitaldian Paskual Rekaldek hitza hartu du. Mariano Izetaz gain, Baztango bi euskaltzain urgazle gogora ekarri ditu: Joxe Azkarate Etxandi eta Blas Fagoaga Ariztia.

Joxe Azkarate (Aniz, 1878 – 1957) «gizon polifazetikoa izan zen: abeltzaina, politikaria, idazlea, pilotazalea eta ongilea. Eta guzien gainetik euskaltzale sutsua». Baztango Udaleko EAJren zinegotzia 1936 bitarteko azken urteetan. Napar Buru Batzarreko kidea ere izan zen 1931tik 1933ra. Rekaldek esan duenez, Azkaratek biziki maite zuen bere sorterria. «1910ean bere etxe bat eskola izateko utzi zuen –1955a arte izan zen herriko eskola, urte hartan egin baitzen ikastetxe berria–. Urte batzuk geroago, 1928an, alor bat utzi zuen herriko pilotalekua egiteko –Mendiarte izenekoa– eta bere sakelatik ordaindu zituen pilotalekuko paretak-eta goititzeko lanak. Ez horrekin aski eta lixiba egiteko tokia ere utzi zuen eta herriko urak ere ekarri zituen». Polikarpo Iraizokoaren hitzetan, Azkarate idazlari trebea zen, ez bakarrik pilota gaietan, baita bertze zernahi alorretan ere, erraterako, euskaran, Euskal Herriko ohituretan, euskal dantzetan, mendiko gaietan, Baztango diru kon-tuetan eta abarretan.

Blas Fagoaga Ariztia (Erratzu, 1897 – Iruñea, 1966). Iruñean apaiztu eta Apaiz-gaitegian bertan filosofia eta euskara irakatsi zituen; liburutegiko arduraduna ere izan zen. Paskual Rekalderen esanetan, «euskarazko hitzak irakasten zizkien ikas-leei. Berak prestatutako koadernotxo batean bildu zituen mila hitz inguru, horietatik gehienak toponimoak. Hitz horien erran-nahia eta jatorria (etimologia) ikasara-zen zizkien ikasle guztiei, bai eta euskararen Nafarroako lekukotasun historiko garrantzitsuenak ere. Horietaz gain, etxetik euskara zekitenei alfabetatze klaseak ematen zizkien». Era berean, Nafarroako Foru Aldundiko euskarazko katedra lortu zuen. Euskaraz zein gaztelaniaz idatzi zuen. Euskal hiztegi gintzan ere lan aipagarri bat egin zuen: «Azkueren iztegi berri eta osoturako. Joakin Lizarraga Elkanoko Apaizaren liburu argitaratu gabekoetatik ateratako itz saila» (1959).

Ondoren, Mariano Izetaren *Dirua galgarri* eleberria izan du hizpide. Gogoan izan du Baztango Udalak eta Euskaltzaindiak berrargitaratu zutela liburua, urte honen hasieran. 2015eko edizio honetan, bi artikulua bildu dira: bata, «Mariano Izeta, zertzelada biografikoak», Jon Abrilek idatzitakoa, eta bertzea, «Idazlanaren gaineko ohar zenbait», Rekaldek berak prestatua. Horretaz gainera, Rekaldek jatorrizko testua euskara batura egokitu du.

«Mariano Izetaren euskara, euskara batua eta euskalkiak *Dirua galgarri* eleberrian» gaia jorratu du jarraian. Bere hitzetan, «ezbairik ez da Marianok bere idazla-



nean Baztango euskara nolakoa zen erakutsi nahi izan zuela, baina ez zen horretara bakarrik mugatu. Erdialdeko euskalkietako (gipuzkerazko) eta nafar-lapurterako hitz eta egitura batzuk maisuki erabili zituen (literatura klasikoa ere ezagutzen zuen). Komatxo artean bada ere, frantseseko hitz bat edo bertze ageri dira bere lanean».

Izetak *Dirua galgarri* idatzi zuenean euskara batua lehen urratsak egiten ari zela esan du. Horrela, euskara batuaren eta euskalkien arteko elkarbizitzaz eta orekaz mintzatu da: «Maiz erran izan da Akademiak ez dituela euskalkiak gustuko, euskalkiak ukatzen dituela. Hori ez da egia. Nahitaez bete beharreko bi baldintza ezarri ditu: bata, idatzian, ortografia bakarra onartzea batuan nahiz euskalkietan, euskara hizkuntza bakarra delako, ez hizkuntza anitz, eta bertzea, idatziz eta ahoz, hizkuntzaren (euskararen) oinarri bakarraren arabera jokatu beharra beti».

Horren ostean, *Dirua galgarri* eleberraren zenbait ezaugarri linguistiko –fonetika-fonologia, morfologia, lexiko eta sintaxi ataletakoak– izan ditu hizpide.

Paskual Rekalderen mintzaldiaren ostean, «Mariano Izetaren kontuak gure ikasgelan» deituriko kontakizuna aurkeztu dute Baztan ikastolako ikasleek, eta aurten go festaren kanta ere abestu dute.

Ekitaldiarekin amaitzeko, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu, Baztan Ikastola osatzen duten guztiei eginiko harrera eskertu eta, euskara sustatzeko eta indarberritzeko eguneroko zereginean Euskararen Akademia beti izanen dutela bidelagun adierazi die.

Ondoren, arratsaldeko 17:30ean, Ageriko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria